

Joseba Amondarain, Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko
Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia
“Gipuzkoa Ekintzailea: Emekin”
2008ko irailaren 2a

“EMEKIN-EN, EMAKUME EKINTZAILEEI EGOKITUTAKO HARRETA, HURBILTASUNA, LAGUNTZA ETA FINANTZAZIO OSO ONURAGARRIA ESKAINTZEN DA”

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuko Joseba Amondarainek bere hitzaldia emakume ekintzailearen errealitateari dagokion paisaia osatugabea deskribatuz hasi zuen, “ bai baitirudi gizonezkoak emakumeak baino ekintzailegoak direla, zerbitzuen sektoreari gehiago ekiten diotela, beranduago ekiten diotela, beharragatik egiten dutela eta, gainera, enpresa-ekimen bat martxan jartzeko beharrezkoak diren oinarrizko gaitasunak gizonezkoek baino gutxiago landu dituztela”. Egoera horren aurrean, Amondarainek adierazi zuenez, Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuan, “gauzak hobetzeko hiru baliabide-aukera genituela konturatu ginen: Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Euskal Herriko Plana; emakumeen ekintzailletza sustatzeko berariazko Plana; eta eremu horretako proposamenak, 2007-2011 denbora-markoan, finantzatzen dituen Europako Gizarte Funtsa”.

Emekin programa marko horren barruan sortu zen, azaldu zuen Amondarainek. Emekin programa Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentuaren ekimena da eta ASPEGIrekin eta Euskadiko Kutxarekin batera jarri zen martxan.

Zer da Emekin? Lehenik eta behin, Amondarainek adierazi zuenez, Emekin genero ikuspegia gehitzean datza, Berdintasun Agentea sortuz, trebakuntza berdintasunean sustatuz, materialak ikuspegi horretan oinarrituta sortuz eta ikuspuntu berri horretatik abiatuta, jarduera etengabe ebaluatuz.

***“Emekin proiektuek, emakume ekintzaileek hala behar dutenean, laguntza errazten
dieten segimendua izaten dute”***

“Emekin proiektuak –adierazi zuen Joseba Amondarainek-, emakume ekintzailearen alde garatutako neurriak pertsonari berari egokitzeko aukera ere eskaintzen du. Horrela, emakumeak aurkeztutako proiektua Aspegiren bidez jasotzen da, eta ondoren, pertsona

horrek behar duen informazio guztia eskaini eta dagokion trebakuntza ere, nola jarretan, hala gaitasunetan, errazten zaio. Azkenik, Emekin proiektu batek hurbileko segimendua izaten du, horrela, emakume ekintzaileak hala behar duenean, dagozkion laguntza-neurri guztiak martxan jar daitezzen”.

Emekin-en elementu garrantzitsu bat Gipuzkoako emakume ekintzailearekiko dagoen hurbiltasuna da, dagoen lekuan aurkitu ahal izateko eta laguntza hori eskuratu ahal izateko hogeit bat elkarte homologatu baitaude.

“Emekin, batez ere, laguntza da”, adierazi zuen Amondarainek. “Jarrera eta gaitasunetan trebakuntza da, baina baita agenda baten edizioa, fisikoa eta digitala, edozein emakume ekintzailek bere enpresa-proiektua martxan jartzeko behar duen informazio guztia ematen duena. Emekin web-orria (www.emekin.net) ere bada; webgune horrek programa osora sarbidea izateko aukera eskaintzen du. Gainera, eta hau oso garrantzitsua da, proiektu ekintzailearentzat finantzazio pribilegiatua lortzea da, Euskadiko Kutxaren bidez”.

“Emekin, emakumearen ekintzailetza-munduan esperientzia partekatzeko eta konplizitatea sortzeko era bat ere bada”

Horixe da Emekin-en errealitatea, adierazi zuen Joseba Amondarainek, eta Emekin, beste programa-mota batzuk martxan jartzeko, proiektuak partekatzeko eta konplizitateak sortzeko ideia-laborategi bikaina dela ere azpimarratu zuen, gainera, lan hori guztia genero-ikuspegi eraginkor eta berritzaile batetik egiten baita.